

*Berdintasuna eta euskara  
guztion ardura*

AZKOITIKO UDALEAN  
**EUSKARA EZ SEXISTA**  
ERABILTZEKO **GIDA**



**AZKOITIA**  
Udala



Emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egin den arren, kultura sexistan eta androzentrismoan bizi gara eta errealitate hori hizkuntzaren erabilera islatzen da. Hizkuntzaren bitartez ideiak, pentsamenduak, sentimenduak eta informazioa adierazten dugu; hau da, errealitatea izendatzeaz gain, interpretatu eta sortu ere egiten dugu.

Sarritan entzun dugu euskara “generorik gabeko hizkuntza” denez, ez dela sexista. Hizkuntzak ez dira sexistak, baina, hizkuntzen erabilerak bai.

Horregatik, eguneroko hizkeran emakumeei eta gizonen ez zaie tratamendu bera eskaintzen. Administrazioan, udalean, gauza bera gertatzen da.

Berdintasuna lortzeko emakumeen duintasuna ikusezin bihurtu eta gutxiesten duten hainbat adierazpen eta esamolde kendu behar ditugu hizkeratik.

Generoko zeharkako politiken barruan eta Azkoitiko II. Berdintasun plana betetzeko, idazkaritza, euskara eta berdintasun atalak, euskara inklusiboaren erabilera sustatzeko gida labur hau sortu dute.

Gidaren helburua da Azkoitiko udalean politikariek eta langileek baliabideak izatea euren eguneroko jardunean gizonekin eta emakumeekin jokaera bera izateko.

Jarraibideak azaltzeko ohiko erabilera okerren adibideen ondoan jaso da berdintasunezko komunikazioan oinarritutako erabilera zuzena.

Mertxe Zubillaga Albizu  
Berdintasun eta Prebentzio zinegotzia

# Aurkibidea



1. Sarrera.....	4
2. Komunikazioa zaintzeko arrazoiak .....	5
3. Araudia.....	6
4. Oinarrizko kontzeptuak.....	7
5. Komunikazio egokirako gakoak.....	8
6. Jarraibideak.....	9
6.1. Maskulino orokortzailea.....	9
6.2. Erabilera sexistak.....	11
6.3. Administrazio hizkuntza, jarraibideak eta ereduak .....	14
7. Irudiak erabiltzeko jarraibideak.....	17
8. Berdintasunaren bidean galdetu zeure buruari .....	18
9. Non argitu zalantzak .....	19



# 1. *Sarrera*

Emakumeak eta gizonak gizartean ez dute tratatu bera jasotzen. Horregatik, emakumeen aldeko politika positiboak bultzatu behar dira poliki-poliki berdintasuna lortzeko.

Bestalde, administrazioari eta ondorioz, bertako politikariei eta langileei onartutako legeria betetzea dagokie. Horien artean Berdintasunekoa. Baina, askotan ez dakigu zer den egin behar dena. Hori dela eta, gida honen helburua da udaleko politikariek eta langileek euskaraz gizoni eta emakumei protagonismo bera emateko baliabideak izatea eta emakumeenganako inolako bereizketarik ez egotea udaleko eguneroko funtzionamenduan.

## Informazioa eta zalantzak:



**943 542 014**



**berdintasuna@azkoitia.eus**

## 2. *Komunikazioa zaintzeko arrazoiak*

- Diskriminaziorik ez eragitea
- Lehen eta bigarren mailako herritarrak ez bereiztea
- Emakumeen bisibilizazioan eragitea
- Legea betearaztea
- Generoaren araberako rol banaketa tradizionalekin haustea, estereotipoei aurre eginez eta aukera berdintasuna sustatuz
- Komunikazio guztietan arau eta irizpide berdinak erabiltzea
- Berdintasunaren kultura zabaltzea
- Azkoitiko udalak duen berdintasunaren aldeko konpromisua adieraztea



## 4. ■ *Dinarrizko kontzeptuak* ■ ■ ■ ■ ■

### HIZKERA SEXISTA

Hizkuntzaren bidez, emakumeen irudikapen partziala eta diskriminatzailea islatzen duena; emakumeak gutxietsiz edota ahul, pasibo, menpeko edo antzerako balioekin aurkeztuz.

Hainbat kontzepturi lotua doa:

#### *Androzentrismoa*

Gizona ardatz duen pentsaera eta jokabidea; erdigunean jartzen du gizonekin eta maskulinitatearekin lotutako oro, bazterrean eta ikusezin utzita emakumeak eta horien esperientziak.

#### *Sexismoa*

Emakumeei eta gizonei balio, gaitasun eta jarduera ezberdinak egokitzea da, bakarrik duten sexuaren arabera.

Emakumeak diren edo egiten dutena gutxietsi, eta aldiz, gizonak diren edo egiten dutena goresten eta balioesten da.


#### *Generoa*

Kultura-jatorriko ezaugarrien multzoa, jokabide eta identitate-ereduei buruzkoa, gizonen eta emakumeen arteko bereizketa sozialki ezartzeko oinarri dena.

#### *Genero-estereotipoa*

Emakumeen eta gizonen ustezko ezaugarri eta atributuen multzoa, horien portaera bereiziak azaltzeko erabiltzen dena; besteak beste, gizarteak genero bakoitzari esleitutako rolen arabera batzuek eta besteek izan beharreko jokamoldea.

 Guztiok gara euskaldun, guztiok **anaiak** gara...

 Eskolako **mais**u guztiak gonbidatuta daude

Negartia, **neska** dirudizu!

 Etorri hona **gizona** bazara!



## 5. *Komunikazio egokirako gakoak*

Azkoitiko Udalak emakumeak zein gizonak hartuko ditu kontuan.

Hizkuntzari dagokionez, forma generiko egokiak bilatuko dira eta irudietan emakumeak bisibilizatuko dira.

1- Komunikazioetan, hartzailearen generoa zehaztu gabea denean edota publiko zabalari zuzendua dagoenean, **generikoa erabiliko da.**

2- **Emakumeak bigarren mailako bihurtzen dituzten mezuak baztertuko dira.**

3- **Emakumeak eta horien papera bisibilizatzeko** ahalegin berezia egingo da.

4- **Emakumeen eta gizonen ezaugarri estereotipatuak** erabiltzea saihestuko da.

5- **Alderdi anekdotikoak ez dira garrantzitsuak**, errealitatea da azaldu behar dena, kasu konkrituak ez dira beti errepresentagarriak.



## 6. Jarraibideak

### 6.1. MASKULINO OROKORTZAILEA SAHIESTEA



#### Hitanoa

Hartzaileak talde mistoan direnean, atzizki edo marka maskulinoa erabili.

*Kirola gustatzen **zaik**?  
Erretzeari utzi **iezaiok**!*

Zuka edo inperatiboa erabili. Femeninoa eta maskulinoaren atzizkiak elkartu.

*Kirola gustatzen **zaizu**?  
**Erretzeari utzi!**  
“Wazamank” “Harrapazank”*

#### “Gizon” izenaren erabilera

Emakumeak eta gizonak izendatzeko, generiko gisa erabili.

***Gizonaren** ohiturak  
**Gizonaren** garapen  
psikologikoa*

***Pertsonen** ohiturak  
**Gizon-emakumeen** garapen  
psikologikoa*

#### Izena + gizon hitz elkartuetan

“-gizon” atzizkia generiko gisa erabiltzea

***Legegizonek** esan dute  
**Enpresa-gizonak** proposamen  
horren aurka daude*

Espezifiko gisa erabiltzea.

*Gure aita **enpresa-gizona** zen.*

Izen berriak sortzea “ari”, “gile” edo “le” atzizkiak edo “langile” hitza erabiliz.

***Legelariak** esan dute  
**Enpresa-jendea** dago/  
**enpresa gizon-emakumeak**  
proposamen  
horren aurka daude*

#### Generoa daukaten izenen plurala edo generikoa

Izen maskulinoak erabili bi generoak izendatzeko.

*Zenbat **seme** dituzu?  
**Osabak** etorri dira Bilbotik*

Euskarazko bikote-izenak erabiltzea.

*Zenbat **seme-alaba** dituzu?  
**Osaba-izebak** etorri dira  
Bilbotik*

“-sa”  
bukaerako  
femeninoak

Zubereraz bizirik dagoen arren  
erabilpena mugatu behar da.

*jainkosa, abadesa,  
alkatesa, aktoresa*

Testuinguruak sexua argituko  
du.

Sexua zehaztu nahi izanez gero:

*Alkate andreak museoa  
bisitatu du.*

*Emakumezko aktore  
onenaren Goya saria jaso du.*

“anaia”  
hitzaren  
eratorrien  
erabilpena

Generikoan erabiltzea

*anaitasuna*

*adiskidetasuna/senidetasuna*



*Zer irudi etortzen  
zaizu gogora?*

Erizaina, idazkaria,  
garbitzailea, telefonista,  
suhiltzailea, iturgina,  
igeltseroa,  
abeltzaina...

**AURREIRITZIAK BAZTERTU!!**

## 6.2. ERABILERA SEXISTAK

### Femeninoaren erabilera estereotipatua, peioratiboa...

Laguntza eskaini zion.  
**Gizon** portatu zen, bai.

Zer zarete, **neskak**?

Ea **aitak** laguntzen  
dizun bizikleta  
konpontzen

Lasai, **amak**  
garbituko dizu.

Horiek dituk **potroak**!

**Emakume**  
negartia dirudizu!



**Andrearen indarra,**  
**titiak eta negarra**

**Astoa eta andrea**  
**ez zaizkio inori uzten**

### Jauzi semantikoa



Testuinguru berdinean, lehenengo zatian hitzak emakumeak eta gizonak izendatzen dituela dirudi, baina bigarren zatian, soilik gizonari buruz ari direla konturatzen gara.

<b>X</b>	<b>✓</b>
<b>Ikasleen</b> ohiturak aztertu dira: ordutegiak, kirola, neskekin harremanak...	<b>Mutilen</b> ohiturak aztertu dira: ordutegiak, kirola, neskekin harremanak...
Gelako <b>haurrek</b> ere portaera hori daukate askotan neskekiko.	Gelako <b>mutilek</b> ere portaera hori daukate askotan neskekiko.

### Pentsamendu androzentrikoaren eragina


<b>X</b>	<b>✓</b>
<b>Greziarrek</b> bozka eskubidea zuten. (* Emakumeek ez zuten.	<b>Aintzinako Grezian gizonak</b> bozka eskubidea zuten.

## Emakumeak gizonen menpeko moduan aurkeztu


	
<i>Trump <b>presidentearen andreak</b> bere senarraren diskurtsoa adi-adi entzun zuen.</i>	<i>Melania <b>Trumpek</b> presidentearen diskurtsoa adi-adi entzun zuen.</i>
<i>laz <b>Pablo Iglesias presidenteordeak eta haren emazteak</b> oporrak bertan behera utzi zituzten jazarpen mediatikoagatik.</i>	<i>laz <b>Pablo Iglesiasek eta Irene Monterok</b> oporrak bertan behera utzi zituzten jazarpen mediatikoagatik.</i>

## Sexuaren arabera tratatu ezberdinak

Egoera zibilak ez du tratamendu berezirik behar.

	
<i>Jon Aresti jauna eta Lorea Bilbao <b>andereñoa</b>.</i>	<i>Jon Aresti jauna eta Lorea Bilbao <b>andrea/anderea</b>.</i>
<i>Lurrak <b>Martin Garairen alargunaren</b> izenean daude.</i>	<i>Lurrak <b>Pilar Letonaren</b> izenean daude.</i>

Izen-abizenak jartzerakoan tratamendu berdina erabiliko da.

	
<i><b>Emmanuel Macron</b> eta <b>Merkel</b> bildu ziren atzo.</i>	<i><b>Emmanuel Macron</b> eta <b>Angela Merkel</b> bildu ziren atzo.</i>

Sexuaren arabera ezaugarri ezberdinak.

	
<i>Serena Williams tenis jokalaririk sexyenetakoa zen, oso ona zen.</i>	<i>Serena Williams mundu mailako tenis jokalaririk onenetakoa zen.</i>
<i>Antonio Banderas aktorea eta Penelope Cruz, <b>beti bezain eder</b>, Oscarretako festara joan ziren</i>	<i>Antonio Banderas eta Penelope Cruz aktoreak Oscarretako festara joan ziren.</i>

## SIMETRIAREN ARAUA

Susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplikatu eta egokia den baloratu



*Gorputz ederrak hondartzan!*



**Gauza bera esango zenuke?**

### **Gutunak**

- ▶ Hartzaileak bat baino gehiago direnean edo hartzailea ezezaguna denean, ez zehaztu sexua. Erabili bazkide, adiskide edo antzeko moduak.
- ▶ Hartzailearen izaera zehazten denean (zuzendari, alkate...) ez jarri jaun edo andre hitza. Erabili agurgarria, estimatua edo antzeko formulak.
- ▶ Guztiekin izena eta abizena erabiltzea da egokiena.
- ▶ “-sa” atzizkia ez erabili.



### **Adiskide agurgarria**

*Jakingo duzunez, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plan berria egiteko prozesua abiatu du Tolosako Udalak.*

*Planaren diseinua parte-hartze prozesu baten bidez gauzatzen ari gara eta oso garrantzitsutzat jo dugu zuok ere, merkataritza eta ostalaritza arloko eragileak, prozesuan inplikatzeari.*

*Horregatik, zuon iritziak, ikuspegiak eta ekarpenak jasotzeko bilera bat antolatu dugu maiatzaren 8an 09:30ean, Kultur Etxean.*

*Aldez aurretik eskerrak emanez*

*Sinatua:*

**Olatz Peon Ormazabal** *alkatea*

### **Posta elektronikoa**

#### **Adi testu eta irudiekin!**

- ▶ Talde bati idazterakoan, agurtze aukera neutroak edo generikoak erabiliko ditugu (**guztiok, taldekideok**, etab.)
- ▶ Hartzailea bakarra denean eta bere generoa ezagutzen dugunean, modu zehatzak erabili ahal izango dira (neska, mutil, andre, jaun...)

*Kaixo lankideok:*

*Honen bidez jakinarazi nahi dizuet, hemendik aurrera, sarrera nagusiko atea Harrera Bulegoko lankideek itxiko dutela beraien lanaldia amaitzerakoan.*

*Eskerrik asko,*

*Alkatetza saila*

## ■ *Lan eskaintzak, lehiaketak, bekak, diru-laguntzak...*

- ▶ Hizkuntza erabili emakumeak zein gizonak identifikatuak sentitu daitezten.
- ▶ Mezuak gizonak eta emakumeak maila berean jasoko ditu.
- ▶ Ahotsak edo irudiak aukeratzekoan, emakumeak agertzea edo parekotasuna bermatuko da.
- ▶ Eskaintzen den lanpostua tradizionalki genero bati lotua egon bada, emakumeentzat eta gizonentzat dela zehaztuko da.



- *Dirulaguntzak gipuzkoar nekazari emakumeentzat eta gizonentzat.*
- *Suhiltzaile lanposturako oposaketa deialdia ireki da, gizonentzat eta emakumeentzat.*
- *Emakume eta gizon erizainak kontratatuko dira.*
- *Hirigintza teknikari lanpostuak beteko dira, gizonekin nahiz emakumeekin.*

## ■ *Oharrak eta jakinarazpenak*

- ▶ Igorle edo hartzailearen generoa ez da informazio interesgarria, ez duelako mezuaren maila baldintzatzen.

OHARRA/ JAKINARAZPENA
Nori?.....
Nork deitu du?.....
Oharra: .....
.....
Nork jaso du deia?.....
Telefonoa: .....
Emaila: .....
Eguna:.....Ordua: .....





## 7. Irudiak erabiltzeko jarraibideak

Emakumeak gizartean pertsona aktibo gisa erakustea.

Emakumeen “kosifikazioa” ezabatzea, emakumeak ez dira gauzak ezta objektu sexualak ere.



Agertzen diren emakumeen eta gizonen kopuruan eta horien irudiek hartzen duten espazioan oreka zaintzea, irudien tamaina eta kokapena hierarkizatzea saihestuz.

Emakumeak eta gizonak egoera eta testuinguru ezberdinetan agertzea, ohiko genero-rolak ez errepikatuz.



Gizartean dauden emakumeen eta gizonen aniztasuna bermatzea, eredu bakarra aurkeztea ekidinez, genero-estereotipoetatik kanpo diren pertsonen irudiak naturalizatuz.

# 8. *Berdintasunaren bidean galdetu zeure buruari*



Ematen dugun irudi soziala erreal da?

Emakumeak eta gizonak maila berean agertzen dira?

Genero rol tradizionalak gainditzen dira?

Nola irudikatzen da emakumeek eta gizonak egin ahal dutena?

Gizon eta emakumeen arteko hierarkiarik badago?

Irudian agertzen den espazioa "estereotipatua" da?

**EREDU EGOKIA DA?**

**ZER BERRIKUNTZA EGIN DEZAKEGU?**

## 9. ■ *Non argitu zalantzak* ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■

### EMAKUNDE

- (2000) *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Gasteiz: Emakunde. Rincón, Ana (koord.)  
[http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/1303/12-EMALEN\\_\\_eu\\_.pdf](http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/1303/12-EMALEN__eu_.pdf)
- (2008) *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.  
[http://www.ehu.es/e-makumeak/docs/eusk\\_gida\\_eu.pdf](http://www.ehu.es/e-makumeak/docs/eusk_gida_eu.pdf)

### UPV/EHU

#### *UPV/EHU n euskararen eta irudien erabilera ez sexistarako gida.*

Egileak: Marije Apodaka Ostaikoetxea eta Eduardo Apodaka Ostaikoetxea.

[https://www.ehu.es/documents/1734204/1884196/Ez\\_sexistan\\_erabiltzeko\\_gida\\_EHU.pdf](https://www.ehu.es/documents/1734204/1884196/Ez_sexistan_erabiltzeko_gida_EHU.pdf)

### AZKOITKO UDALA

#### *Berdintasun arloa.*

Tel.: 943 542 014 / Emaila: [berdintasuna@azkoita.eus](mailto:berdintasuna@azkoita.eus)



2021eko maiatza